



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI


TXOSTENA 2014

www.ongdeuskadi.org



Aurkibidea

- | | |
|---|----|
| 1. Aurkezpena | 3 |
| 2. Nortzuk gara?
Misioa, Baloreak, Lan ildoak, Barne antolaketa | 6 |
| 3. Gure ekimenak
Euskadi, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa | 9 |
| 4. Koordinakundeko kideak
Gobernu Batzordea, Lan-taldeak, Erakundeetan partaidetza, Talde Teknikoa, GGKEak, Lankideak | 36 |
| 5. 2014 zenbakitan | 39 |
| 6. Kontu argiak | 40 |



I. AURKEZPENA

Gure izatearen benetako arrazoaia

Hiritarren konpromiso solidarioak tinko dirauen arren, politika sozial publikoak ahultzen doaz, eta horiekin batera baita garapenerako euskal lankidetzaren ere. Herritarrentzat lankidetzaren behar-beharrezkoa da, justizia, elkartasun eta giza eskubideekiko errespetuaren printzipioetatik, baina urte honetan euskal erakundeek murrizketekin jarraitu dute eta, salbuespenak salbuespen, lankidetzaren politikak gero eta urrunago daude Barne Produktu Gordinaren %0,7 lankidetzara bideratzeko Nazio Batuen nazioarteko konpromiso historikotik.

Murrizketa horiek kalte egiten diote orain arte Euskadik lankidetzaren arloan izan duen ospeari. Gizarte zibileko elkarte-ehun sendoak eta konpromiso publiko indartsuak eman zioten ospe hori eta nortasun propioaren lankidetzaren bat erdietsi zen, kalitate handikoa eta aurrekontu partidak handitzeko eta hobetzeko konpromisoa hartu zuena.

Garapenerako lankidetzaren politikak, gizartearen egituratzeko eta kohesionatzeko duten politika sozialen parte diren aldetik, funtsezkoak dira ehunka laguntzat. Era berean,

ezin dugu baztertu laguntzen ditugun herrialde pobretuengandik ikasten duguna, lagungarri zaigulako XXI. mendeko mundu globalizatu honen errealitatea hobeto ulertzeko; mundu ireki eta global bat, ongia komuna lortzeko asmoz batzen diren pertsonen osaturik dagoena.

Balazta hori askatzeko (kasu batzuetan benetako atzerakadak eragin dituen) eta erakundeek gorago aipatutako konpromisoa eta Garapenerako





Lankidetzaren Euskal Legea bete ditzaten, eragin sozial eta politikoko hainbat ekintza garatu ditugu. Halaber, kalera irten gara gure aldarriak herritarrengana helarazteko eta, *Lankidetzaren eraldaketarako* kanpainaren bitartez, balioan jarri ditugu politika horiek, kanpainarekin bat egin duten beste pertsona ezagun batzuen laguntzarekin.

Sektoreak bizi duen testuinguru zail honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da Koordinakundearen papera, bere garrantzia eta izatearen arrazoiak: erakunde kide guztien indarrak batzea helburu komun bat lortzeko. Urtean zehar, 86 GGKE kideok lanean jardun dugu Koordinakunde indartsu bat eraikitzeko, sektoreko zati handi baten ahotsa izan dadin, lan espazioen, lantaldeen, eta abarren bidez.

Esan ozen izeneko kale ekintza berritzaile bat egin dugu, zeinaren bidez gizartera iristeko modu berriak esploratu baititugu, gure mezuak modu positibo eta erakargarriagoan transmititu ahal izateko.


Zein da zein? kanpaina arrakastatsuekin jarraitu dugu, zeinak hatzaz seinalatzen baititu pobrezia eta desberdintasuna sortzen dituzten arrazoiak, eta beste garapen eredu bat lortzeko eskura dauzkagun alternatibak. Kanpaina hau *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio kanpainaren aurtengo edizioko ardatza izan da gainera.

Zero Pobrezia kanpaina bultzatzen jarraitu dugu, eta urriaren 17an, hau da, Pobreziaren aurkako Nazioarteko Egunean giza eskubideen urraketa hori salatzen dugu gure kaleetan. Eta aldarrikapen horiek guztiak entzun daitezkeen, sarean lan egin dugu gure helburu berberak dituzten beste kolektibo, mugimendu sozial eta plataforma batzuekin.

Era berean, Genero Politika aplikatzen eta genero ikuspegia euskal lankidetzan txertatzen jarraitu dugu.

GGKE kideen lana indartzeari ekin diegu eta laguntasuna eman diegu beren helburuak lortzeko. Askotariko gaiei buruzko aholkularitza eta laguntza eman diegu eta saiatu gara Koordinakunde espazio parte-hartzaileak baliagarri izan daitezkeen eraikuntza kolektiborako. Bestalde, aholkularitza eman diegu Koordinakundera informazio bila datozen partikularrei. Horrez gain, ongi etorria eman diegu 4 erakunde berriri: Farmacéuticos Mundi-Farmamundi, Acción Contra el Hambre, Pausumedia eta KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo.

Prestakuntza ere funtsezko lan-ildoetako bat izan da, genero berdintasuna izan delarik ardatz nagusietako bat. Aipamen berezia egin nahi genioke *Lantaldeen kudeaketa ez patriarkalari buruzko prozesuari*, zeina oso interesgarria izan baita parte hartu duten GGKEentzat eta Koordinakundearentzat.



Los efectos 'invisibles' de los recortes en cooperación

IRAKI ORUBE Y FERNANDO VAQUERIZO
MIEMBROS DE LA JUNTA DE GOBIERNO DE LA COORDINADORA DE ONG DE DESARROLLO DE EUSKADI

La actual deriva está provocando un retroceso en avances logrados gracias al esfuerzo de la sociedad vasca comprometida con la lucha contra la pobreza

En los últimos años se han producido cambios en las políticas sociales en Euzkadi, desde ellas se ha cooperado internacionalmente. El compromiso de las instituciones públicas con la cooperación social es un hecho. La mayoría de las propuestas destinadas a este fin se han desarrollado: Gobierno Vasco, Diputación Foral de Álava, Ayuntamiento de Bilbao y Diputación Foral de Bizkaia. En otros casos, Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Donostia, se han desarrollado y en otros, Consorcio de Vivienda Gazteak de la Diputación Foral de Vizcaya ha promovido una gran movilidad en estas políticas, generando a su vez un nuevo grupo político para sacar adelante el presupuesto de la sociedad. Esta realidad nos lleva a pensar que el futuro de la política social en Euzkadi, no sólo depende de la voluntad política de los gobiernos, sino también de la voluntad política de la ciudadanía vasca. En este sentido, la falta de compromiso de la ciudadanía vasca con la cooperación social es un hecho. Esto se refleja en el hecho de que el 70% de los votantes de cada 100 votos de la última elección local en Euzkadi, no votó por el partido que se comprometió con la cooperación social. Esto se refleja en el hecho de que el 70% de los votantes de cada 100 votos de la última elección local en Euzkadi, no votó por el partido que se comprometió con la cooperación social. Esto se refleja en el hecho de que el 70% de los votantes de cada 100 votos de la última elección local en Euzkadi, no votó por el partido que se comprometió con la cooperación social.

Además, los recortes en las políticas sociales en Euzkadi, desde ellas se ha cooperado internacionalmente. El compromiso de las instituciones públicas con la cooperación social es un hecho. La mayoría de las propuestas destinadas a este fin se han desarrollado: Gobierno Vasco, Diputación Foral de Álava, Ayuntamiento de Bilbao y Diputación Foral de Bizkaia. En otros casos, Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Donostia, se han desarrollado y en otros, Consorcio de Vivienda Gazteak de la Diputación Foral de Vizcaya ha promovido una gran movilidad en estas políticas, generando a su vez un nuevo grupo político para sacar adelante el presupuesto de la sociedad. Esta realidad nos lleva a pensar que el futuro de la política social en Euzkadi, no sólo depende de la voluntad política de los gobiernos, sino también de la voluntad política de la ciudadanía vasca. En este sentido, la falta de compromiso de la ciudadanía vasca con la cooperación social es un hecho. Esto se refleja en el hecho de que el 70% de los votantes de cada 100 votos de la última elección local en Euzkadi, no votó por el partido que se comprometió con la cooperación social. Esto se refleja en el hecho de que el 70% de los votantes de cada 100 votos de la última elección local en Euzkadi, no votó por el partido que se comprometió con la cooperación social.

Las políticas públicas de cooperación social en Euzkadi, desde ellas se ha cooperado internacionalmente. El compromiso de las instituciones públicas con la cooperación social es un hecho. La mayoría de las propuestas destinadas a este fin se han desarrollado: Gobierno Vasco, Diputación Foral de Álava, Ayuntamiento de Bilbao y Diputación Foral de Bizkaia. En otros casos, Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Donostia, se han desarrollado y en otros, Consorcio de Vivienda Gazteak de la Diputación Foral de Vizcaya ha promovido una gran movilidad en estas políticas, generando a su vez un nuevo grupo político para sacar adelante el presupuesto de la sociedad. Esta realidad nos lleva a pensar que el futuro de la política social en Euzkadi, no sólo depende de la voluntad política de los gobiernos, sino también de la voluntad política de la ciudadanía vasca. En este sentido, la falta de compromiso de la ciudadanía vasca con la cooperación social es un hecho. Esto se refleja en el hecho de que el 70% de los votantes de cada 100 votos de la última elección local en Euzkadi, no votó por el partido que se comprometió con la cooperación social. Esto se refleja en el hecho de que el 70% de los votantes de cada 100 votos de la última elección local en Euzkadi, no votó por el partido que se comprometió con la cooperación social.

Gaur egun sektoreak testuinguru aldaketa bat bizi du, eta horregatik, *Urrats bat gehiago* izeneko barne go-goeta prozesua jarri dugu martxan. Lehen fase gisa GGKE kideen egoeraren diagnostiko bat egin dugu, krisiak sektoreko esparru desberdinetan nolako eragina izan duen jakiteko. Emaiza horiek lagungarri izango dira etorkizuneko ekintzak pentsatzeko eta asmatzeko.

Langintza honetan komunikabideen laguntza izan dugu, interesaturik agertu baitira gure ekintza eta aldarrikapenetan. Sare sozialen aldeko apustua egin dugu herritarrekin elkarrengaitzeko eta hori ere baliagarria da euskal lankidetzaz egagutzera emateko.

2014an zehar lankidetzaren sektoreak zailtasun askori aurre egin behar izan die, ekonomikoak batez ere, baina aurrera jarraitzen dugu bazkideek ematen diguten arnasari esker eta herrialde pobretuekiko hartua dugun konpromisoak bultzatuta.

Azkenik, egunero Koordinakundea errealitatea bihurtzen duten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, beren ahalegina, denbora, dedikazioa eta lana eskaintzen baitiote proiektu amankomun honi eta bere izatearen benetako arrazoari, orain inoiz baino gehiago gainera.

Ana María Arriola

Euskadiko Garapenerako
GKEen Koordinakundeko presidentea



2. NORTZUK GARA?

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea 1988an sortu zen kide diren GGKEen jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko eta horrek berekin dakar elkarren artean hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea. Hasieran 11 kide fundatzailez osatu bazen ere, 2014aren amaieran 86 GGKE ditu eta 140 egoitza baino gehiago Euskadiko lurraldeetan.

Misioa

Koordinakundea garapen lanetan diharduten GKEez osaturiko kolektibo bat da. GGKE hauek Jokabide Kode amankomun bati atxikitzea erabaki dute eta horrela egitura antolatu bat osatu dute lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloetan lan egiteko, genero ekitatean oinarritutako giza garapen iraunkorraren paradigmatari jarraituz. Hona hemen Koordinakundearen lan arlo garrantzitsuenak:

- Kalitatezko garapenerako lankidetzaren sustatzea, euskal erakunde publiko zein pribatuen artean eta Koordinakundeko kide diren erakundearen artean.
- Koordinakundeko kide diren erakundearen prozesuei laguntzea, dauzkaten gaitasun politiko zein teknikoak indartuz.
- Gure ingurunean eraldaketa soziala bultzatzea, herritarren artean elkartasunaren kultura sustatuz, desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz eta gure garapen eredu patriarkal eta neoliberalak pobreziaarekin eta Iparra-Hegoa desberdintasunekin daukan harremanari buruzko eztabaida kritikoa bideratuz.



Hori guztia aurrera eraman nahian, Koordinakundean topaketa, eztabaida eta gogoeta espazioak eskaintzen ditugu kide diren erakundeek irizpide komunak sor ditzaten. Eragina izaten ahalegintzen gara sozialki eta politikoki, aliantzak egiten ditugu beste mugimendu sozial batzuekin eta presentzia publiko esanguratsua izaten saiatzen gara. Horrekin batera, erakundeei laguntzen diegu beren lanean, dauzkaten gaitasunak indartzen ditugu, beren arteko aliantzak bideratzen ditugu eta kolektiboaren esku jartzen ditugu kide bakoitzak daukan baliabideak eta alderantziz.

Baloreak

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundearen lana eraldaketa sozialaren esparruan kokatzen da, desberdintasunak gaituz eta mundu justuago baten alde borroka eginez. Mundu osoko beste hainbat talde sozialek bezala, geurea egin dugu *Beste mundu bat posible da* leloa. Testuinguru horretan, garapenerako lankidetzak oinarritzat dauzka elkartasuna, desinteresa eta dohaintasuna; garapenerako lankidetzak ez da transferentzia ekonomiko hutsa, herri pobretuekin lan egiten da giza garapena eragotzen duten oztopoak ezabatzeko, hezkuntza lortzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko eta ohartarazteko badi-rela hori guztia eragotzen duten hainbat mekanismo. Koordinakundeak, halaber, kide diren erakundeekin zuzentzen dituzten baloreak islatzen ditu. Garrantzi berezia ematen diogu demokrazia parte-hartzailea, independentzia, gardentasuna, koherentzia eta genero ekitatea lantzeari.

Lan ildoak

Hauk dira GGKE kideek Koordinakundearentzat finkatu dituzten lehentasunezko lan ildoak:

- Eragin politikoa, salaketa eta mobilizazio soziala, genero berdintasuna kontuan hartuta.
- Koordinakundeko erakunde kideen eraldaketa sozialerako gaitasuna indartzea.

Horretarako, erlazionaturik dauden bost helburu nagusi definitu ditugu:

- Eragina izatea lankidetzak politikan.
- Legeriaren betepena eta politiken koherentzia zaintzea.
- Kritikoki eta proposamen modura zabaltzea Ipar-Hegoko desberdintasunen eta gure gizarteko aberastasunaren banaketa desberdinaren kausak eta ondorioak.





- Aliantzak sustatzea mugimendu sozialekin, mobilizazioaren oinarri soziala zabaltzeko eta alternatiba pluralak eraikitzeko.
- Kide diren erakundeen gaitasunak hobetzea, beren helburuak koordinatuki, eraginkortasunez, efizienteki eta koherentziaz lor ditzaten.

Barne antolakuntza

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundearen organo garrantzitsuena Batzar Nagusia da, zeina aldi behin elkartzen baita urte bakoitzerako oinarritzko irizpide eta lan ildoak ezartzeko. Batzar Nagusian aukeratzeko dirak Koordinakundea kasuan kasuko instantzietan ordezkatzeko duten karguak.

Batzar Nagusia urtean gutxienez behin biltzen denez, Gobernu Batzordea Koordinakundearen organo exekutiboa da. Batzorde horrek programatzen eta zuzentzen ditu Koordinakundearen jarduerak, Batzar Nagusiak eta plan estrategikoak zehaztutakoaren arabera. Lurralde Batzarrek, Koordinakundearen ordezkariak horretan elkartutako GGKEek osatzen dituztenak, lurralde ordezkariak gobernu organoak dira. Gainera, lurralde

bakoitzean lantaldeak oinarri hartuta egiten da lan. Onginahi hutsez lan egiten duten hainbat GGKEetako kideek osatzen dituzte eta talde txikiak izaten dira. Une honetan eragin sozial eta politikoa, generoa, komunikazioa, garapenerako hezkuntzaren... arloetan lan egiten dute.

Koordinakundeak hiru ordezkariak ditu, bat lurralde bakoitzerako. Lantalde Teknikoaren laguntzaz gauzatzen dira Batzar Nagusietan, Lurralde Batzarretan eta Gobernu Batzordean hartutako erabakiak. Gainera, etengabe eskaintzen zaie informazioa eta aholkularitza GGKE kideei eta orientazioa ematen zaie informazio edo laguntza bila Koordinakundera jotzen duten guztiei.

2001az geroztik, Espainiako GGKEen Koordinakundearen barruan gaude. 2009an, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak Euskadiko GGKEen Koordinakundeari eman zion Ignacio Ellacuria saria garapenerako lankidetzaren esparruan egindako ibilbideagatik. Hogei urteko lanagatik eta garapenarekin zein aldaketa sozialarekin hartutako konpromisoagatik emandako esker ona izan zen hau.



3. GURE JARDUERAK

Euskadi

Eragin soziala eta politikoa

Salbuespenak salbuespen, oro har Euskadiko lankidetzaren politikak murrizketa instituzionalak jasan dituzte. Beraz, harreman instituzionalen arloan finkatutako helburu garrantzitsuena lankidetzaren politikak balioan jartzea izan da, politika sozialen parte direlako eta gizartearen ongizatea eta kohesioa bilatzen dutelako.

Horretarako, urtean zehar harreman egonkorak izan ditugu lankidetzaren politikak diseinatzeko ardura duten eragileekin eta baita Euskadin ordezkariak izan dituzten eragileekin ere. Aipatzekoa da aldizkako bilerak egin ditugula Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eta hiru Foru Aldundietako eta hiriburuetako udaletako lankidetzaren arduradunekin; eta baita Eusko Legebiltzarraren osatzen duten taldeekin ere. Halaber, Koordinakundeak ordezkariak izan du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza Batzordean eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan; eta kasu bietan haien agenden jarraipena egin dugu. Era berean, Koordinakundeak GGKE kideen artean adostutako posizionamenduak eta ekarpenak aurkeztu ditugu, alderdi hauek barne hartuz: koherentzia, genero berdintasuna eta garapenerako hezkuntza. Horrez gain, ekarpenak egin

dizkiogu lankidetzaren Euskal Agentziaren Plan Zuzentzaileari eta hainbat alderdi garrantzitsu landu ditugu, hala nola euskal lankidetzaren ereduak, instrumentuak, politika koherente, koordinatu eta parte-hartzaile baten diseinua eta ebaluazio mekanismoak.

Erakundeetako aurrekontuei dagokienez, sakonki aztertu ditugu euskal erakunde publiko nagusien aurrekontuak eta 2015ean aurreikuspen horien %0,7 lankidetzara bideratzeko proposamena aurkeztu diegu talde politiko guztiei. Bestalde, lan koordinatua garatu dugu beste plataforma sozial batzuekin batera inguruko kolektiboengana hurbiltzeko, hainbat espaziotan parte hartzen baitugu elkarrekin, eta beraz zenbait helburu ere partekatzen baitugu.

Tokian tokiko gobernuek funtsezko papera jokatzen dute politika globalen eraldatzaile bezala, hori dela eta, *Garapenerako politiken koherentzia: lankidetzaren deszentralizatuko esperientziak aztertuz* jardunaldia antolatu dugu urriaren 2an Bilbon, jakiteko nola lagundu dezaketen tokiko erakundeek garapen eta politika eredu justuagoak eta koherenteagoak –globalki eragin handia dutenak– planteatzen. Jardunaldi hartan hainbat



Beste behin, lankidetzaren garapena diru gabe utzi du Javier Marotok

2015eko aurrekontu proiektua aurkeztu du Gasteizko alkateak eta, besteak beste, ez du dirurik aurreikusirik nazioarteko lankidetzarako. «Ezberokoek» lehenetsuna dutea adierazi du alkateak

«Ezberokoek» lehenetsuna dutea adierazi du alkateak

2015eko aurrekontu proiektua aurkeztu du Gasteizko alkateak eta, besteak beste, ez du dirurik aurreikusirik nazioarteko lankidetzarako. «Ezberokoek» lehenetsuna dutea adierazi du alkateak



La crisis castiga las aportaciones públicas a proyectos de cooperación

Aunque algunas organizaciones han mantenido su trabajo esencial, la mayoría se han reducido o aminorado

La crisis económica ha castigado las aportaciones públicas a proyectos de cooperación internacional. Aunque algunas organizaciones han mantenido su trabajo esencial, la mayoría se han reducido o aminorado.



Jardunaldiaren bideoak web honetan edo Youtube-ko gure kanalean ikus ditzakezu.



kontu jorratu ditugu: zer den politiken koherentzia eta zein dimentsio dauzkan, nola lantzen den lankidetzaren deszentralizatu... Eta baita ezagutu dugu ere gai hori lehenesten duen erakunde baten kasu konkretua, hau da, esperientzia zehatz bat daukana.

Beste alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Zuzentzaileak konpromisoa hartzen du Koordinakundearen eta Aldundiaren artean irizpide bat adosteko eta irizpide horren bidez Garapenerako Laguntza Ofizialaren portzentajea kalkulatzeko. Azken helburua pixkanaka kalkulu hori Barne Produktu Gordinaren arabera egitea da, eta ez aurrekontu globalaren arabera, azken hori baita Koordinakundeak gaur egun darabilen irizpidea. Lehen urratsak Gipuzkoan eman dira, hainbat bilera eta eztabaida egin ditugulako Ogasun Sailarekin eta Foru Aldundiko Nazioarteko Lankidetzaren Zuzendaritzarekin, baina talde espezifiko bat sortu dugu Euskadi osoan lantzeko. Gure erronka aurrera egitea da Barne Produktu

Gordinaren %0,7ko nazioarteko akordiora iristeko, malgutasunez jokatzuz beti ere.

Euskal lankidetzaren publikoaren azterketa: lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat izeneko azterlana eguneratzen hasi gara, non euskal erakundearen lankidetzaren politikak aztertzen baititugu denbora tarte batean, kasu honetan 2011 eta 2014. urteen artean. Txosten horren helburua gaur egungo egoerari buruz gogoeta egitea da GGKEen sektorearen ikuspegitik, eta batez ere zenbait gako ematea etorkizuneko bilakaerari buruz. Beraz, baliagarri izan daiteke bai lankidetzaren sektorean lanean dihardugun erakundeentzat bai txostenean aztertu ditugun erakunde publikoentzat. Era berean, aukera ematen du lankidetzaren errealitatea hobeto ezagutzeko, eta gardentasun ariketa bat da politika publiko horiek hiritarregana gehiago hurbiltzeko.



Pertsonak lehenengo: murrizketarik ez!

Aipatu dugu euskal erakunde gehienetan murriztu egin direla lankidetzara bideratutako aurrekontuak, eta horregatik *Pertsonak lehenengo: murrizketarik ez* kanpainarekin jarraitu dugu, zeinaren helburua baita murrizketa horiek saihestea, hiritarrei ikusaraztea ekarpen horiekin milaka lagunen bizitza hobetzen dela, krisialdian ere lankidetzara premiazkoa dela, e.a. Funtsean, lankidetzara deszentralizatuari balioa ematea politika publiko gisa. Ekimen hau jarri dugu martxan kontuan harturik Euskadiko lankidetzara erreferentziazkoa izan dela Estatuan azken 25 urteetan, ez bakarrik erakunde publikoek bideratu duten funts kopuruagatik, baina baita ere, eta bereziki, aplikatu diren politiken kalitatearengatik eta emakumeen eskubide, genero ekitate eta jabeakuntzaren alde duten konpromisoarengatik. Frogatu dugu halaber aurrekontuetako murrizketek ondorio argiak dituztela herrialde pobretuetan pobrezian eta ezberdintasun egoeran bizi diren milioika pertsonengan.

Jarraipena eman diegu arrakasta izan duten beste bi ekimeni. Lehenengoa ikus-entzunezko kanpaina bat da,



Lankidetzara eraldaketarako izenekoa. Euskal gizarteko pertsonaia ezagun zenbaitek bideo labur batzuen bidez beren babesa azaltzen baitie lankidetzako politikari eta uko egiten baitie pertsona makalenengan zuzeneko eragina duten murrizketei. Garbiñe Biurrun jurista eta Toti Martínez de Lezea eta Bernardo Atxaga idazleak dira aurten kanpainarekin bat egin duten pertsonaia ezagunak.

Bigarren ekimena izen bereko argazki erakusketa bat da, Hegoaldeko herrialdeetako zortzi biztanleren lekukotzak jasotzen dituena. Euskaditik iritsitako nazioarteko lankidetzari esker, giza baliabideen arloan lortu dituzten aurrerapenak kontatzen ditu irudiak erabiliz. Erakusketa hori Euskadiko hainbat udalerritan kokatu dugu: Lau-dioko Kultur etxean, Amurrioko Bañueta kiroldegian, Gasteizko Koroatze Adinekoentzako Zentro Soziokulturalean -GGKEetan boluntariotzari buruzko hitzaldi batekin batera-, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian eta Bilboko Alondegian eta Hikaateneoan. Azken kasu honetan, eta inaugurazio ekitaldia aprobetxatuz, baita ospatu dugu ere euskal lankidetzara publikoaren 25 urtetik gorako ibilbidea. Ekitaldi horretan, besteak beste, GGKEak eta erakunde publikoak ere izan dira.



Gainera, abenduaren 19an eta Goloka antzerki konpainiaren eskutik, kale ekintza antzerkitu bat egin dugu, euskal erakundeek aitzakiarik gabeko apustu argia egin dezaten politika publiko hauen alde. Ekintza hori *Pertsonak lehenengo: murrizketarik ez!* lelopean egin da Gasteizen bertan lankidetzara politikak desegiten ari direlako.

Webean edo Youtube-ko gure kanalean ikus-entzunezko kanpaina hau osatzen duten bideoak ikus ditzakezu. Erakusketa webean ere ikusgai dago



Esan ozen

Krisiaren testuinguruan eta politika sozialak (besteak beste nazioarteko lankidetzarekin lotutakoak) kolokan dauden honetan, urrats bat harago joan gara gure kaleko ekintzetan; hala, ahalegina egin dugu mezu positiboak eta hiritarrengana iristeko modu berriak bilatzeko eta espazio eta bide alternatiboak erabiltzeko haiekin elkarreragin eta gure lana euren gurengana hurbiltzeko.

Hala, ideia lehiaketa bat deitu genuen esparru sozialetik hurbil lan egiten duten Euskadiko komunikazio agentzien bitartez, sormena izan zedin ekintza berritzaile honen balio erantsia. Ideia irabazlea musika kontzertu parte-hartzaile eta berritzaile bat izan da, zeinetan ezinbestekoa baita hiritarren lankidetzaren musika beren belarrietara helarazteko. Jendeak kalean kokatutako pedalak zapaldu behar izan ditu musika taldearen instrumentuak entzuteko. Ekintza horren helburua hiritarrei lankidetzaren baloreak biziaraztea izan da, beren ekarpenaz jabetu zitezen eta uler zezaten pertsona guztien inplikazio aktiboa behar dela gure gizartea eraldatzeko.



Jarduera hori, *Esan ozen*, irailaren 13an egin da Gasteizko Arka Plazan eta 27an Bilboko Kale Nagusian. *DND Swing Band* izan da kontzertuko talde nagusia, eta *Sinestu orain* kantua konposatu dute jarduerarako. Gasteizko Luis Aramburu Udal Musika Eskolako gospel abesbatzak eta Pez Limbo antzerki taldeak ere parte hartu dute jardueran. Protagonizatzen musika izan duen ekintza horrek eragin handia izan du hiritarren artean, aukera eman digulako lankidetzaren errealitatea lankidetzan aritzen ez diren pertsonengana hurbiltzeko. Interesa sortzeko asmoz, jarduera honekin batera jakin-mina pizteko ekintzak egin dira sare sozialetan, zeintzuk ekimenen funtsezkoak izan baitira.

La Box marketing eta komunikazio agentziaren laguntzarekin burututako kanpaina hau 2015eko *Publifestival* Nazioarteko Gizarte Publizitate Jaialdiko *Ekimen sozial edo kultural* hoberena kategorian saritua izan da.



Esan ozen kontzertuko bideoak Koordinakundearen webean edo Youtube-ko kanalean ikusi.

Zein da zein?

Aurrera jarraitu dugu gizarte zibilari zuzendutako komunikazio eta sentsibilizazio kanpainarekin. Kanpaina horren bidez modu erraz eta pedagogikoan azaltzen ditugu sistema neoliberal patriarkalak maila global zein lokalean dauzkan eragin garrantzitsuenak, erantzule nagusiak identifikatzen ditugu eta ekintzarako estrategiak proposatzen ditugu.

Hain zuzen, Bibiana Medialdeak maiatzaren 29an Bilbon emandako *Agortuta dagoen ereduari kritika eta alternatiba feministak* hitzaldian postal batekin batera plazaratu dugu kanpainako bigarren bideoa: *Tiritek ez dute pobrezia sendatzen*. Bideo horretan pobrezia eta desberdintasuna sortzen dituzten arrazoi garrantzitsuenetako batzuk aztertzen dira. Erantzuleak ere seinalatzen ditu, esaterako, nazioz gaindiko hainbat enpresa, energia eta ura bezalako sektore garrantzitsuak kontrolatzen dituztelako, eta baita Nazioarteko Moneta Funtsa eta Munduko Bankua ere, herrialde pobretuenentzat kaltegarriak diren erabakiak hartzen dituztelako. Era berean, pobrezia emakumeengan duen inpaktu espezifikoaz mintzatzen da. Bestalde, Iparraldeko herrialde aberatseneko herrialde pobretuetako baliabide naturalak espoliatu dituztela azaltzen du ere, gainera, espoliazio hori jasan dutenek kanpo zor bidegabea itzuli behar diotela espoliazioaren arduradunei.

Irailean *Gerraren negozioa* izeneko bideoa aurkeztu dugu Donostiako *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio jardunaldiaren barruan, libreta osagarri batekin batera. Hirugarren bideo horretan gatazka armatuen ondorio batzuk erakus-

ten dira, horren bidez gatazkek eragiten duten sufrimendua, urratzen dituzten giza eskubideak eta emakumeengan duen inpaktu espezifikoak salatuz, hain ikusgarria ez dena eta sarritan aitoritu ere egiten ez dena. Gatazken krudeltasuna gorabehera, badago gatazketatik etekina ateratzen duenik. Gatazkek negozio errentagarriak dira. Gainera, egungo sistema kapitalista eta patriarkala iraunarazten dute. Halaber gerrak herrialde pobretuetan gertatzen direla salatze da, herrialde horiek menderatzeko gogoaren erakusgarri.

Bi bideo horiek garapen eredu desberdin bat lortzeko alternatibak eta proposamenak eskaintzen dituzte. Kanpainak interes handia piztu du hainbat sektoretan: mugimendu sozialetan, komunikabideetan, beste erakunde batzuetan, e.a. Hain zuzen, GGKE kide askok kanpaina hau ere erabiltzen dute beren jardueretan, eta aurkeztu egin da Bakea eta Duintasuna erakundeak Donostian urriaren 21etik 23ra antolatutako *Komunikazioa, botereak eta demokrazia* izeneko mintegian. Gainera, sare sozialetan duen presentziari esker hedapen publiko handia izan du.

Jakiteko nortzuk diren pobrezia eta desberdintasunen erantzuleak, QR kode hau eskaneatu daiteke dispositibo mugikor batekin edo kanpainaren webgunea bisitatu: www.iniciativaquienesquien.org. Sare sozialetan #IniciativaQuienEsQuien traolarekin ere jarraitu dezakezu.




Pobreziaren aurkako astea

Urriaren 17an Pobreziaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen da eta Zero Pobrezia kanpainaren markoan pobrezia sortzen duten kausak salatu ditugu. Aurten aukeratu den gaia pobrezia energetikoa izan da, Ipar-Hego ikuspegitik eta baita generoaren ikuspegitik ere. Beste urte batez, askotariko kolektiboak batu ditugu hitzordu honetan eta kalera irten gara lelo eta manifestu honi jarraituz: *Ez lapurtu gure energia*. Hiru lurraldean hedapen bateratua egin dugu komunikabideetan (prentsurrekoa Gipuzkoan izan da).

Arabian aipatzekoa da Koordinakundeak urriaren 15ean *Pobreza energética, ¿quién paga la factura?* izenburupean antolatutako hitzaldia. Bertan Vicenç Navarro, Zientzia Politiko eta Sozietako katedradun eta Espainiako Gizartearen Behatokiko zuzendariak eta Cote Romero, *Plataforma por un Nuevo modelo Energético*-ren koordinatzaile eta Ecooo plataformako zuzendariak parte hartu dute. Gasteizko Eskubide Sozialen aldeko Plataformak ere *Renta básica de ciudadanía: ¿utopía o realidad?* hitzaldia antolatu du eta bertan parte hartu

dute Daniel Raventós, Bartzelonako Unibertsitateko irakasleak eta *Renta Básica* sareko presidentek eta Ander Rodríguez, Gipuzkoako Politika Sozialen diputatuak. Gainera hainbat tailer egin ditugu hezkuntza zentroetan (Gasteizen eta Laudion) eta *Laudioko VIII. Azoka Solidarioa* antolatzen lagundu dugu.



Gure Youtube-ko kanalean eta webean Gasteizko Pobreza energética, ¿quién paga la factura? hitzaldiko bideoak ikus ditzakezu.





Bizkaian, Koordinakundeaz gain, aste honetan EAPN-Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin eta REAS-Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sareak parte hartu dute ere. Urriaren 16an *Que no te roben la energía: la pobreza energética* hitzaldia antolatu dugu Bilbon, Carlos Berzosaren (Ekonomia aplikatuko katedraduna eta CEAR-Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordeko presidentea) eta Cote Romeroren eskutik. Era berean, laguntza eskaini diegu Durangoko hainbat kolektibori (besteak beste, Kaleratzeak Stop plataforma eta Fiare) bertan antolatu diren jardueretarako.

Gipuzkoan Zero Pobrezia 5 plataformen bitartez antolatzen dira jarduerak. Urriaren 14an Donostian *Colapso civilizatorio: poniendo la vida en el centro* hitzaldia eman du Yayo Herrero antropologo, gizarte hezitzaile eta FUHEMeko zuzendari nagusiak. Hilaren 15ean Agustín Panikerrek –editorea, idazlea eta Indian aditua– hitzaldi bat eman du *La insostenibilidad del modelo: el caso de India* izenburupean, Zigor Aldama kazetaria aritu zela-



rik dinamizatzaile lanetan. Hilaren 16an, *Pobrezia energetikoa* mahai-inguruan bildu dira Victoria Pellicer –Valentziako Unibertsitateko aditua–; Goiener eta Pobrezia Energetikoaren aurkako Plataforma. Hilaren 17an pobrezia energetikoa salatzen *Bizimartxa* egin da Haizearen Orrazitik Boulevarderaino, *Txita Sound System*-ek giroa alaitu duelarik. Gipuzkoako gainerako herrietan tokian tokiko taldeek ere hainbat ekintza antolatu dituzte. Zaurutzen bi hitzaldi nabarmentzen dira: *Ecofeminismo: una propuesta para transitar a un mundo justo* Yayo Herreroren eskutik; eta *Conquistando la soberanía energética* Cote Romeroren eskutik. Horrez gain, zine-forum bat egin da *También lluvia* pelikularen inguruan.

Pobrezia energetikoaren gaiarekin jarraituz, Pez Limbo taldeak antzerki emanaldi bat eskaini du Gasteizen, Bilbon eta Donostian, hiritarrentzako mezuak modu berritzaile eta sortzaile batean helaraztea eta arazo honen inguruan sentsibilizatzea helburutzat harturik.



Beste kolektibo batzuekin sarean eginiko lana

Sinetsirik gaude sare bateko parte izanez ekintza eta eraginarako gaitasun handiagoa daukagula, eta horregatik hainbat aliantza lotu ditugu inguruko eragile eta mugimendu sozialekin, helburu komunak finkatuz eta sareko harreman egituratuak sortuz. Horrelako harremanek balio estrategikoa dute eta beraz lehentasunezkoa da Koordinakundearentzat.

Ekain Sarean parte hartzen hasi gara, eta gurekin batera daude bertan REAS-Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea eta EAPN-Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin, Harresiak Apurtuz, Gizatea eta Hirekin. Gizarte ekintzaren, immigrazioaren eta lankidetzaren arloetako Euskadiko irabazi asmorik gabeko sei sare biltzen ditu helburu honekin: gizarte inklusiboago bat sustatzea berdintasunean, elkartasunean eta parte-hartzean oinarritutako politikak eta baloreak bultzatuz. Aipatzekoa da abenduaren 2an Bilbon egindako *Gizarte desiragarri baterako posiblea den ongizatea* jardunaldia.

Bizkaian aurten sortutako *Euskal Herria TTIP EZ* plataformarekin kolaboratzen hasi gara, non integraturik baitaude Gune plataforma eta Attac bezalako beste erakunde batzuk. Bere helburua Estatu Batuak eta Europar Batasuna negoziatzen ari diren merkataritza eta inbertsio liberako ituna arbuizatzea da.





Bestalde, aktiboki parte hartu dugu Gune plataforman, non ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, HIRU eta EHNE zentralak eta beste ehun bat kolektibo sozial (besteak beste SOS Arrazakeria, 15M, Berri-Otxoak, Aldauri, *La Posada de los Abrazos*, KEM-MOC, Mujeres Babel) biltzen baitira. Espazio horretan, eta helburutzat harturik nazioarteko elkartasunaren bidez Hegoaldearen ikuspegia sartzea, *Euskal Herriko eskubide sozialen gutuna* prestatzen lagundu dugu, zeina Bilbon aurkeztu baitzen maiatzaren 31n. Dokumentu horren helburua gure ekonomia eta baliabideak euskal hiritarren zerbitzura jartzea, eta hemen bizi diren pertsona guztiei bizi-baldintza duinak ematea oinarritzko eskubide sozialak aitortuz eta baliatzeko aukera emanez da. Era berean, euskal erakundeek eskatu diegu berek ere onar dezatela hiritarrekin duten erantzukizuna eta behar diren neurriak har ditzatela hiritar guztiek aukera izan dezaten beren oinarritzko eskubide sozialak baliatzeko.

Euskal Goi-bilera Sozialean presentzia izaten jarraitu dugu hainbat erakunde sindikal (CCOO, UGT eta USO) eta sozialekin (Ikasle Ekintza, *Unión Progresista de Fiscales*, ADICAE, *Jueces para la Democracia*, HOAC, *Mesas por la Convergencia*, besteak beste) batera. Beste hainbat ekintza eta mobilizaziotan ere parte hartu dugu, esaterako azaroaren 29an Bilbon egindakoa *Por la protección y el empleo: RGAri bai! Eredu soziala babes dezagun* lelopean. Parte hartu dugu ere nazioarteko elkartasunari buruzko kapitulu baten erredakzioan, *Krisiarentzako alternatibak* koadernoan integratuko dena.



Zorraren Auditoria Sarean presentzia izaten eta hari laguntzen jarraitu dugu, eta hala, zorraren aurkako Aste Globaleko jarduerak antolatzen lagundu dugu Attac erakundearekin, ELA eta ESK sindikatuekin eta beste erakunde batzuekin batera.

Aipatzekoa da lanean jarraitu dugula Palestinaren aldeko Mewando sarearekin, non integraturik baitaude lau euskal GGKE (SODEPAZ Euskadi, Biladi, Bakea eta Elkartasuna Euskadi, eta Bakea eta Duintasuna) eta Koordinakundea bera. Mewandoren helburua Palestinaren okupazioaren inguruan euskal hiritarrak sentsibilizatzea da. Tesuinguru honetan, elkartasun ekintzak antolatu eta babestu ditugu, hala nola Palestinara joan zen Euskal kultur ordezkarien III. ordezkaritza (otsailan); Nakba-ren urteurren jarduerak maiatzaren 15ean (janari arabiarren tailer gastronomikoa, ospakizun afari bat Bilboko Hikaateneoan eta kontzentrazio bat Bilboko Arriaga antzokian); kontzentrazio bat Israeleko postuaren aurrean

Expovacaciones azokan (maiatzak 9-11); min-tegi bat Donostian Palestina-Israel gatazkari albistegietan ematen zaion tratamenduari buruz (maiatzak 6); *Derechos Humanos en Palestina. Del Sionismo al Apartheid* izeneko udako ikastaroa EHU/UPVn (ekainak 24 eta 25); eta *BDZ-Boikota, Desinbertsioak eta Zigorrak Israelen okupazioaren aurka* kanpainako ekintzak, besteak beste. Era berean, Gazarekiko hainbat elkartasun ekintza garatu ditugu, Israelek Marjina Babeslea Operazioaren barruan udan egin zuen eraso krudelaren ostean.



Aurten berriro oso aktiboki parte hartu dugu Gasteizko Eskubide Sozialen aldeko Plataforman, helburu berberak partekatzen baititugu pobrezia eta desberdintasunen kontrako borrokan. Eurek sustatutako ekimen hauetan parte hartu dugu: Udalak eginiko murrizketa sozialak salatu ditugu; Larrialdi Sozialeko Laguntzak eta politika sozialak babestu egin ditugu; Udalak elikadura arloko prestazioetan egin dituen aldaketa murriztaileak eta alkateak etorkinen aurrean izan duen jarrera eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kolokan jarri izana salatu egin ditugu; eta partaide izan gara Gora Gasteiz erakundeak bultzatutako kanpainan, zeinaren bidez eskubide sozialak defendatuko dituen hiri solidario eta integratzaile bat aldarrikatu baitugu. Bestalde, espazio horretara ekarri ditugu lankidetzarekin lotutako aldarrikapenak eta plataformak Pobreziaren aurkako Astean parte hartu du.

Aktiboki parte hartu dugu azaroaren 25eko eta martxoaren 8ko Koordinakunde Feministetan eta, gainera, Euskal Herriko Emakumeen Mundu marxan integratu gara, GGKE kideak mugimendu feministara hurbiltzeko hartua dugun konpromisoari jarraiki. Era berean, lanean jarraitu dugu Estatuko eta Autonomietako Genero Taldeen sarearekin eta baita euskal lankidetzako Chico-Gizon berdinezaleen kolektiboarekin ere. Aipatzekoa da, bestalde, lankidetzari buruzko hainbat ekarpen egin dizkiogula Wide Sareak koordinatu duen CEDAW itzaleko txostenari.

Espainiako GGKEen Koordinakundeko kide garen aldetik, etengabe egon gara harekin harremanetan eta haren espazio anitzetan parte hartu dugu. Horien artean aipatzekoa da martxoaren 1ean Koordinakunde Autonomikoentzat antolatutako prestakuntza-saioa, garapenerako politiken koherenziari buruzkoa, eta baita martxoaren 20an egin zen Ohiko Batzar Orokorra eta ekainaren 13an Madrilan egin zen Estatuko Zero Pobrezia Topaketa ere. Baita parte hartu dugu ere Koordinakunde Autonomikoen taldean eta batez ere kolaboratzaile-lanak egin ditugu *Hacia una cooperación local transformadora* jardunaldiaren antolakuntzan, uztailaren 7an egin zena Madrilako Senatuan, Koordinakunde Autonomikoen taldeak berak antolaturik. Donostiako Udalak ere parte hartu zuen ekitaldi horretan. Jarduera hori tokiko lankidetzak balioan jartzeko kanpaina baten barruan kokatzen da. Orobat parte hartu dugu azaroaren 14tik 16ra Zaragozan eginiko GGKEen *Koordinakunde Autonomikoen Topaketan*. Hitzordu horretan hainbat gai landu ditugu, besteak beste, mugimendu sozialekiko harremanak, Koordinakundeek beren funtzionamenduen inguruan egin behar duten birplanteamendua eta tokiko lankidetzaren etor-

kizuna. Espazio bat ere antolatu da Koordinakunde batzuek eta besteek beren kanpainak eta lanak truka zitzaten, eta foro bat ere bai parte-hartze demokratikoko tokiko esperientziak azaltzeko.

Azkenik, parte hartu dugu ere *Eragin soziala helburu. Gizarte erakundeen kanpo komunikazioa optimizatzeko estrategia eta baliabideak* topaketan, hots, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak deitutako hiru saioko prozesuan. Topaketa horrek hainbat helburu izan zituen: diagnostiko partekatu bat egiteko espazio bat sortzea erakundeen komunikazio egoerari buruz; estrategia kolektibo bat planteatzeko gizarte mugimenduak ikusarazteko; eta premiak eta tresnak identifikatzea erakundeen komunikazio eta eragin sozialeko lanak optimizatu ahal izateko. Sarean eginiko lan prozesu bat izan da, non esparru sozial desberdinetako Euskadiko hainbat kolektibo sozialak parte hartu baitute.



Kanpainak, manifestuak eta ekimenak babestea

Aliantzak bilatu behar ditugu beste kolektibo eta eragile batzuekin herritarrak mobilizatzeko, zenbait bidegabekeria salatzen, presioa egiteko eta alternatibak proposatzeko, eta, helburu horri jarraiki, *Agente, sare, erakunde eta gizarte mugimenduekiko harreman markoa* dokumentuak aukera eman digu GGKE kideek proposatutako manifestu, kanpaina edo ekimenekin bat egiteko.

Hala, gogora ekarriko ditugu TTIPren negoziazioengatik kezka azaltzeko dokumentua, *Lau presazko neurri egingarri Europak Ceuta eta Melillako mugetako dramari konponbidea eman diezaion* izeneko manifestua, *Gasteizen elikadura sostengarria lortzearen aldeko* manifestua, Europar Batasunaren eta Israelen arteko akordioa bertan behera uzteko eskaera, Polochic-i (Guatemala) laguntzeko eskaera, Euskal Herriko Abortu Eskubidearen aldeko Plataforma dekalogoaren emakumeen erabakitzeko eskubidearen alde; eta Migratzaileen eta beren Familien Nazioarteko Egunaren kariatara antolatutako ekintzak.

Babesa eman diegu GGKE kideei Koordinakundeak bere egin dituen kanpainak hedatu ditzaten, hala nola Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpaina, Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunaren tesuinguruan. Azkenik, aktiboki parte hartu digu Garapenerako Hezkuntzen IV. Biltzarra ekimenaren antolakuntzan, *Hezkuntza aldatzen, mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde!* lelopean Gasteizen urriaren 11n egin zena.



Generoa, formakuntza eta ikerketa

Generoari dagokionez, gure Genero Politikaren esku-hartze ildoak garatzen jarraitu digu jarduera anitzen bitartez, hala nola sareko lana eginez eta eragin sozial eta politikoa sustatuz prestakuntza jardueretan, helburutzat harturik generoa gero eta transbertsalagoa izan dadila gure jarduera esparruan. Bestalde, hala eskatu diguten GGKE kideei, babesa eman diegu genero berdintasun gaietan eta barneko genero politikak egiteko prozesuetan.

Genero berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeekiko harremanei dagokienez, aipatzekoak dira Emakundekin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eginiko bilerak. Genero lantaldeak Koordinakundearen postu bat izan du aurten ere Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan, Koordinakundeak espazio hartan hartzen dituen jarreretan genero berdintasuna zaintzen dela bermatzeko.



Prestakuntza ekintzetan, genero berdintasunaren gaia izan da ardatz nagusietako bat. Urtarrilaren 16an *Generoa eta eragin politikoa* prestakuntza jardunaldia egin dugu Bilbon Rosabel Agirregomezkortaren eskutik (generoan eta garapenean aditua). Ekintza hori Gobernu Batzordeko kideei, lankidetzakontseiluetan Koordinakundea ordezkatzen dutenei eta Koordinakundeko Eragin Politiko eta Sozialeko lantaldeetako kideei zuzendu zaie. Apirilaren 8an Bilbon *Begirada, hitza, irudiak, itxura, pertsonak eta abar aldatuz... Komunikazio berdinkoi eta eraldatzaile baten alde tailerra* antolatu dugu eta Mugarik Gabe erakundeko María Viadero izan da hizlaria. Ekitaldi horren helburua gida bat osatzea Koordinakundearen barruan hizkuntza, irudi eta eduki ez sexistak bultzatzeko izan da.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera *Nola lor dezaketen GGKEek EBren finantzaketa* ikastaro praktikoa antolatu dugu Gasteizen abenduaren 18an, eta ekintza horren bidez jarraipena eman nahi izan diogu iaz hasitako lanari. FIIAPP-ko (Administrazio eta Politika Publikoen Iberoamerikarako Na-

zioarteko Fundazioa) Espainiako Lankidetzak Politiken Jarraipen Programako koordinatzaile den Javier Sota izan da hizlaria, eta ekitaldian parte hartu dute halaber Mugarik Gabe eta Zabalketa GGKEek eta Euskadiko Ordezkaritzak Europar Batasunean duen ordezkarierako batek.

Bestalde, Donostian, maiatzaren 14an, *Sormenari buruzko ikastaro praktikoa* prestakuntza jardunaldia antolatu dugu Naufragio antzerki taldearen eskutik, eta jardunaldi horrek helburu bikoitza izan du: GGKEen ekintzek gizartean inpaktu eta oihartzun handiagoa izan dezaten tresnak ezagutzea eta, aldi berean, *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio jardunaldia birformulatzeko ideiak sortzea.

Maiatzaren 29an Bibiana Medialdeak *Agortuta dagoen ereduari kritika eta alternatiba feministak* izeneko hitzaldia eman du Bilbon. Bibiana Medialdea nazioarteko ekonomian eta garapenean aditua eta ekonomia aplikatuko irakaslea da Madrileko Complutense Unibertsitatean.

Bilboko ekitaldiekin jarraituz, irailaren 18an *Nola izan eragina erakunde publikoen aurrekontuetan* ikastaroa antolatu dugu Óscar Luis Magán, Gasteizko Udaleko aurrekontu eta kontabilitate arduradunaren eskutik. Ikastaro horren helburua erakunde publikoetan aurrekontuak egiteko eta onartzeko jarraitzen den barne prozesua hobeto ezagutzea izan da, hala Koordinakundeak zeintzuk diren aurrekontuen arloan eragin ekintzak garatzeko une egokienak hobeto jakin dezan.

Gure Youtube-ko kanalean ikus ditzakezu Bibiana Medialdeak emandako *Agortuta dagoen ereduari kritika eta alternatiba feministak* jardunaldietako bideoak.

Bestalde, *Lantaldeen kudeaketa ez patriarkalari buruzko prozesua* izeneko prestakuntza-ekintza egin dugu. Gasteizen egin dugun esperientzia berri bat da, erakundeetan hobeto txertatuko diren prestakuntzak antolatzeko, eta hala, aldizkako hitzaldi eta ikastaroez harago joateko. Mugarik Gabe erakundeke María Viaderok dinamizatu du prozesua eta saioetako batean Natalia Navarrok parte hartu du. Koordinakundeke kide diren 8 GGKEk parte hartu dute urtean zehar egin diren 5 saioetan (azkena 2015aren hasieran egin zen). Hona hemen landutako gai batzuk: zer da lantaldeen kudeaketa eta zer da patriarkatua, erakundeak genero ikuspegitik kudeatzeko giltzarriak, erakundeen analisia, pertsonen kudeaketa genero ikuspegitik, kudeaketa ez patriarkala aplikatzea erakundeetan...

Irailaren 30ean REAS-Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea barne mintegi bat egin du ekonomia feministari buruz. Amaia Pérez Orozco adituak parte hartu du eta Koordinakundeak ekitaldirako deialdia jaso du beste erakunde batzuekin batera. Hitzordu horretan ikuspegi desberdinak planteatu, eztabaidatu eta alderatu ditugun hainbat gai buruz, esaterako, zer esan nahi duen bizitzaren sostengarritasuna erdigunean jartzeak hainbat tesuinguru kontuan hartuta, hala nola, espazio alternatiboak, eguneroko bizitzaren politizazioa, lantalde ez patriarkalak, zaintza...



Uztailaren 18an ikastaro bat antolatu dugu Bilbon Prezi tresna berritzaileari buruz, zeinak aukera ematen duen erakusketetarako aurkezpen erakargarri eta dinamikoak sortzeko.

Azkenik, aipatuko ditugu GGKE kideek antolatutako bi prestakuntza-saio, zeintzuetan Koordinakundeak hizlari gisa parte hartu baitu: *Elkarrizketategia. Autonomia eraikiz: Nikaraguako eta Euskadiko esperientzia emakumeen eskubideen defentsan*, Oxfam Intermón-ek Bilbon maiatzaren 7an antolatua; eta *Maskulinitasunei eta Giza Garapenari buruzko I. Topaketa*, azaroaren 20an eta 21ean Bilbon egin dena, *Chico*-Euskal Lankidetzako Gizon Berdinzaleen Kolektiboak antolatuta.



Ikerketa esparruaren barruan, Batzar Nagusiaren ekimenez abiarazitako gogoeta prozesuan egin da lan gehien. Ikusirik garapenerako lankidetzaren testuinguruan nolako aldaketa ematen ari den, Koordinakundeak gogoeta prozesu bat jarri du martxan, sektorean gertatzen ari diren aldaketei nola aurre egin aztertzeko.

Hala ere, prozesu hori hasi aurretik, beharrezkotzat jo dugu GGKE kideen egoerari buruzko ahalik eta diagnostiko zehatzena edukitzea. Horretarako, inkesta bat egin dugu 2010 eta 2013. urteen arteko informazioa biltzeko eta denboran zehar izandako bilakaera alderatu ahal izateko. Inkestaren edukia 4 bloketan egituratuta daude: Hegoaldeko proiektuetan izandako inpaktua; Iparraldeko proiektuetan

izandakoa; antolakuntza-egituran izandakoa eta etorkizuneko bilakaeraren aurreikuspenak.

Inkesta osatzeko prozesuan pertsona talde bategi parte hartu du, non ordezkaturik baitzeuden lantalde teknikoak, Gobernu Batzordea eta GGKE batzuk. Prozesu osoan zehar *Taller de Sociología* enpresaren laguntza izan dugu eta azken txosten bat ere egin dugu. Koordinakundearen Ohiko Batzar Orokorra ekainaren 28an egin zen Donostian eta hantxe aurkeztu genizkien GGKEei inkestaren azken emaitzak eta ondorio garrantzitsuenak. Uztailean datu horiek GGKE kide guztietara eta erakunde publikoetara zabaldu ditugu. Ondoren, gosari informatibo baterako deialdia kazetariari egin genien. Bilbon izan zen uztailaren 29an eta

inkestaren ondorio nagusiak *Krisiaren eraginaren ondorioak euskal lankidetzan 2010-2013* dokumentuaren bidez ezagutarazi genizkien.

Bestalde, lankidetzaren etorkizunari buruzko gogoeta prozesuan bilatu da batez ere adostasuna eta Koordinakundearen lehentasunak finkatzea lau ardatz tematikoren inguruan: testuingurua, araudi markoa, mugimendu sozialekiko harremanak eta enpresekiko harremanak. Prozesu horri *Urrats bat gehiago* izena eman diogu eta horretarako Incyde enpresaren laguntza izan dugu. Ekainaren 28ko Batzar Nagusian egindako tailer batean lau ardatz horien inguruko diagnostikoaren lehen fasea itxi dugu. Ondoren, azaroaren 17an bigarren tailer bat egin dugu lanarekin jarraitzeko, eta hirugarren saioa 2015eko urtarilean egin dugu. Gogoeta prozesuaren amaiera Koordinakundearen Batzar Nagusian itxiko da, nahiz eta 2014an amaitzekoa zen eta beraz apur bat luzatu den.

GGKE kideak indartzea eta publikoarentzako arreta

GGKE kideen lana indartzen jarraitu dugu eta beren helburuak lor ditzaten laguntasuna eman diegu. Horretarako, informazio eta aholkularitza zerbitzua erakundeei eskaini diegu hainbat gairi buruz: lankidetzak, deialdiak, diru-laguntzak, lan eskaintzak, prestakuntza, material informatikoa edo bibliografikoa mailegatzea, genero berdintasuna, komunikazioa, eragin politiko eta soziala, traste administratiboak... Halaber, lan-poltsa kudeatu dugu, materialak eta argitalpenak banatu ditugu, emaitzak bideratu eta lurraldeetako lan-taldeak koordinatu ditugu, besteak beste. Gainera, sozialki arduratsuak diren irizpideak jarraitzen dituzten eta GGKEekin lan egiten duten enpresen informazioa bildu dugu (sostengarritasuna, gizarteratzea...), abantailak, deskontuak edo ekarpen solidarioak eskaintzen dizkietelako erakundeei, eta, hala, aukera eman zaielako Koordinakundeko kide diren GGKEei baldintza abantailatsuak lortzeko.

Era berean, arreta eta orientazioa eman diegu informazio edo aholkularitza bila Koordinakundera jo duten partikularrei, bereziki GGKEetan boluntario izan nahi dutenei edo Hegoaldeko herrialdeetara joateko aukeren berri jakin nahi dutenei. Publiko horri begira, *Hegoaldearekin elkarlanean aritu nahi duzu?; nola parte hartu* txosten informatiboa eguneratu dugu. Txosten horretan zein aukera dauden GGKE kideen Euskadiko egoitzetan eta herrialde pobretuetan boluntario gisa lan egiteko jasota daude. Eskaintzen den prestakuntza



zabala eta zeintzuk diren esparru honetara lehen aldiz hurbildu nahi dutenentzako edo bertan profesionalki sartu nahi dutenentzako bekak, praktikak eta programak aipatzen ditu ere. Edukiak eguneratzeaz gain, nabarmen hobetu ditugu atalak eta eduki horien formatua, bateratu egin ditugularik lurraldeetako hiru txostenak erkidego osoa barne hartzen duen txosten bakar batean.

Bestalde, bilera informatiboak egin ditugu Koordinakundeari eta kide diren GGKEei lagundu nahi dieten edota Koordinakundera sartu nahi duten erakundeekin. 4 erakunde berri sartu dira Koordinakundera: KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi, Acción Contra el Hambre eta Pausumedia.

Koordinakundeko ordezkartzen beste eginkizunetako bat lurraldeetako batzarretarako deialdia egitea da, erakundeen lan koordinatua hobetzeko. GGKEek parte-hartze aktiboa izan dute lan espazio desberdinen bitartez: lantaldeak, batzordeak...

Aurten Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta erkidego mailan elkartasuna eta lankidetzak sustatzen duten komunikabideak eta kazetariak identifikatzeko datu basea berriro eguneratu eta hobetu dugu. Nobedade gisa, Estatu mailako beste espazio mediatiko interesgarri batzuk sartu ditugu, zeren, gure jarduera esparrutik urrun samar gelditzen diren arren, garrantzitsuak izan baitaitezke GGKEentzat, lankidetzarekin eta elkartasunarekin lotutako gaiak ere jorratzen dituztelako. Tresna horren helburua GGKE kideei hedabideetan sartzeko bidea erraztea eta erakundeen informazioa arlo honetan erreferentziazkoak diren pertsonen eskuetara iristea da.

Halaber, gai desberdinei buruzko argudio zerrendak eta oinarrizko dokumentazioa GGKEei helarazi diegu, lagungarri izan dakien hedabideen aurrean egiten dituzten agerraldietan eta GGKE guztiak sektorearekin lotutako gaien inguruan antzeko mezuek hedatu ditzaten. Zenbait argudio eta ideia jasotzen ditu krisi garaian lankidetzak defendatzeko.



Bestalde, beste datu base bat eguneratu dugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakunde publikoek, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzeta Agentziak (AECID) 2014an argitaratu dituzten diru-laguntzen deialdi guztiekin, ekimen pribatuen diru-laguntzekin batera. Tresna horren bidez erakundeen barne antolakuntza erraztu nahi izan dugu.

Lankidetzeta sektoreak bizi duen testuinguru zail honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da Koordinakundearen papera, bere funtsezko arrazoia: indarrak batu behar dira helburu komun bat lortzeko. Erakundeen artean talde bateko kide izatearen sentimendua indartu nahian eta parte hartzera bultzatzeko asmoz, ekintza eta eztabaidak antolatu ditugu GGKEek gogoeta egin dezaten sektore osoa batuko duen Koordinakunde indartsu baten premiaren inguruan.

Azkenik, Koordinakundeak euskara bultzatzeko egina duen apustuari jarraiki, hiru ordezkarietzek *Bai Euskarari* ziurtagiriak dituzte; Gipuzkoan *Guk zerbitzua euskaraz* mailakoa eta Araban eta Bizkaian *Euskararen bidean* mailakoa.



La mitad de las ONG vascas ha dejado de trabajar en países del sur
El recorte de 27 millones de euros en tres años obliga a un tercio de ellas a endeudarse

EUSKADI SE ALEJA DEL 0,7% PARA EL DESARROLLO

LOS RECORDES A LA AFERRA AL TERCER MUNDO

-17,1%
-17,0%
-8,7%

"Las mujeres en la CV han sido muy importantes, pero en otras cooperativas la cooperación ha desaparecido"

Komunikazioa

Gure lana eraldaketa sozialerako komunikazioaren ikuspegitik egiten dugu, eta horretarako ezinbestekoa da komunikabideen eta kazetarien parte-hartze aktiboa. Urtean zehar hedabideetan erakundeek lankidetzan egin dituzten murrizketak salatu ditugu, Euskadiko lankidetzeta politika publikoak balioan jarri ditugu, hainbat bidegabekeria salatu ditugu eta, besteak beste, pobrezia eta Ipar-Hego arteko desberdintasunak sortzen dituzten kausak ezagutzera eman ditugu. Horretarako, hainbat komunikazio ekintza egin ditugu (prentsa oharra, hedabideentzako deialdiak, kaleko ekintzak, prentsaurrekoak, harremanak iritzia sortzen duten pertsonekin...) eta horien bidez hainbat agerraldi eta elkarrizketa lortu ditugu eta inpaktu mediatikoa ere erdietsi dugu. Gainera, iritzi artikulu hauek argitaratu ditugu: *Ordua da ideiak aurrez aurre jartzeko, ez pertsonak; Euskadiko lankidetzeta arloko murrizketen ondorio "ikusezinak;* eta *Ez lapurtu gure energia.* Radio Euskadiko *La Galería* programan kolaborazioak egiten jarraitu dugu, batzuetan elkarrizketetan parte hartuz, bestetan sektorearentzat interesgarriak diren gaiak proposatuz eta, beste batzuetan, GGKE kideei irratian espazio bat eskainiz. Hegoaldeko proiektuen onuradunen testigantzak hedatu ditugu komunikabideetan, lankidetzeta politikak aukera bat ematen dietela giza eskubiak defendatzeko borrokan azaltzeko. Era berean, komunikabideetan Hegoaldean kooperante gisa lanean ari diren euskal GGKEetako pertsonen



elkarrizketak egin diezazkieten harremanak bideratu ditugu, eta horrela lehen eskutik kontatzen den lana. Azkenik, aurreko urtean bezala, onlineko argazki artxibo bat hedabideen esku jarri dugu, euskal GGKEek Hegoaldeko hainbat zonaldeetan garatzen dituzten proiektuen argazki osatuta dagoena. Honen helburua egiten duten lana erakustea eta hedabideei argazki egokiak eskaintzea da, hau da, egokiak direnak lankidetzaren eta *Hegoaldeari dagokionez* Irudi eta Mezu Kodearen ikuspegitik.

Facebook eta Twitter sareetan presentzia izaten jarraitu dugu, gure jardueren berri emateko, gure gogoetak partekatzeko, e.a. Kanal bat ere badugu Youtube web orrian, non aurten grabatu ditugun bideoak partekatu baititugu eta beste bat Vimeo web orrian, non *Zein da zein?* ekimeneko ikus-entzunezko guztiak bildu baititugu. Ivoox plataforman ere espazio bat ireki dugu, herritarren esku irrati kateetan egiten ditugun elkarrizketen audioak jartzeko. Urtean zehar sare sozialetan herritarren parte-hartzea eta haiekiko elkarreragina indartzeko ekintza espezifikoak egin ditugu: #CooperarParaTransformar, #IniciativaQuienEsQuien, #AlternativasFeministas, #EsanOzen, #Ahotsa... Sare sozialen aldeko apustuari eutsi



diogu, aukera paregabea direlako euskal GGKEek garapenerako lankidetzaren eta sentsibilizazioaren esparruetan egiten duten lana ezagutarazteko.

Koordinakundearen web orria garai berriei eta sektorearen premiei egokitzeko asmoz, hobekuntza handiak egin ditugu (diseinua, atalak, Koordinakundeak presentzia duen sare sozialetarako botoiak egokitu, edukiak irakurtzeko, erraztasuna hobetu...) eta gainera espazioa egokitu dugu dispositibo mugikorretan ere bistaratu ahal izateko: *smartphone, tablet...* Hedapen-lana egiten jarraitu dugu gure jarduerak ezagutzera emateko, babesten ditugun beste batzuenak eta baita GGKE kideenak ere edo lankidetzarekin, elkartasunarekin eta giza eskubideekin lotutako beste mugimendu sozial batzuenak. Web orri honetan bestelako eduki interesgarri batzuk ere jasotzen ditugu, hala nola lanpostuak, boluntarioritza eskaintzak, diru-laguntza publiko eta pribatuen deialdiak, artikulua eta estekak, jardunaldiak, kanpainak, jakinarazpenak...

Astean behin *Munduz mundu* buletin digitala harpideei bidali diegu, non, asteroko jarduera agendaz gain, bestelako informazio interesgarria ere aurkitu baitaiteke. Tresna hori ere birdiseinatu eta egokitu egin dugu.

Gure jardueren berri izan dezakezu, Facebook, Twitter, Youtube, Vimeo eta Ivoox sare sozialetan jarraitzen bagaituzu.



Argitalpenak

Ahotsa aldizkariaren hiru ale argitaratu ditugu eta kazetaritzako ikuspegi, formatu eta kolaborazio desberdinen bidez gai ugari landu ditugu. Besteak beste aipatzekoak dira hauek: *Zein da zein?* sentsibilizazio eta komunikazio kanpaina, gure inguruan nahiz Hegoaldeko herrialdeetan emakumeek lurrarekin duten harreman estua, Gasteizen eta Bilbon egindako *Esan ozen* kale ekintza, Donostian *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio jardunaldien markoan egindako bertso saioa, *Garapenerako politiken koherentzia* jardunaldia eta *Unibertsitea eta mugimendu sozialak* topaketak, biak ala biak Donostian antolatutak, eta Bilbon egin zen *Desazkundera eta Bizitze Ona IV. topaketak: Transitzioarantz. Eredu justu eta sostengarri*. Sentsibilizaziorako argitalpen bat da, Koordinakundeak editatzen duena, eta askotariko irakurleei helarazten zaiena: ikastetxeak, erakundeak, liburutegiak, komunikabideak, GGKEak, beste mugimendu sozial batzuk, pertsonaia interesgarriak...

Amaitu dugu *Euskaditik mundura: konpromisoak bizitzen eraldatzaile* izeneko bideoa. Ikusentzunezko material hezitzaile simple, dinamiko eta erakargarri bat da, sare sozialetan hedatzeko pentsatua dagoena, eta GGKEen eta Koordinakundearen lana herritarrei erakustea helburu duena.

Halaber, 2013ko memoria egin dugula eta erakunde kideekin harremanetan jartzeko datuak biltzen dituen GGKEen Direktorioa berreditatu dugula aipatzekoa da.



Bideo hau webean edo Youtube-ko gure kanalean ikus dezakezu.

Gure argitalpen guztiak webean eskuratu daitezke.



Araba

Beste urte batzuetan bezala, sarean lan egiteko bi udal espazio hauetan parte hartu dugu: *Gasteizko hiritarren parte-hartze eredu berrikusteko prozesua* eta *Gasteizko elkarten eta parte-hartzearen behatokia*, biak ala biak Udaleko Hiritarren Parte-hartze Sailak dinamizatuak. Gasteizko Udaleko Gazteen Informazio Bulegoarekin ere lan egin dugu boluntariotzari buruzko hitzaldi informatibo bat antolatzeko Gasteizen irailaren 23an *Elkartasuna oinarriztat harturik Hegoa aurkitu; Garapenerako GKEak ezagutzea eta parte hartzea* izenarekin. Gainera, beste hitzaldi bat eman dugu azaroaren 20an Gasteizko Koroatzeko Adinekoentzako Zentro Sozio-kulturalarekin batera, bertan instalatutako *Lankidetzaren eraldaketarako* argazki erakusketaren markoan.

Bestalde, Gasteizko Udalarekin lankidetzan *Gazteak mundubira* ikus-entzunezko lehiaketa martxan jarri dugu helburu hauekin: hiriko gazteak elkartasunaren eta garapenerako lankidetzaren esparruetara hurbiltzea Hegoaldeko herrialdeetako esperientziak eta hango errealitateak erakusten dituzten bideo laburren bitartez; eta gazteek garapenerako lankidetzaren esparruan duten parte-hartze aktiboa ikusaraztea. Asmoa Gasteizko gazteen bideoak erakustea da, eta zehazkiago, Hegoaldeko herrialdeetan bizitako esperientziak eta pobretutako herrialdeen errealitateak (hango jendearen bizimodua, garapena, kultura...) erakusten dituztenak. Web orri bat sortu dugu horretarako.

Aurten ere espazioak utzi dizkiegu GGKE kideei beren materialak biltegitatu ditzaten Gasteizko Udalak utzi digun lokal batean. Gainera, Koordinakundeak Araban duen egoitza Simone de Beauvoir Elkarten Etxean kokatuta dago, espazio partekatu batean parte hartuz hain zuzen ere. GGKE kideek etxe horretako erabilpen anitzeko aretoa erabiltzeko aukera izan dute ere.

Bestalde, lan handia egin dugu probintziako koadriletan, hain ugariak diren GGKEak ezagutzeko eta beren ekintzak sustatu eta koordinatzeko. Besteak beste, aipatzekoa da probintziako sare laneko dokumentua eguneratu eta zabaltzea izana, non GGKEek Araban egiten duten lana indartzeko eta hobetzeko informazio interesgarria hainbat ataletan biltzen baita.



Gainera, ekainaren 12an *Korapiloak askatuz. Arabako Garapenerako GKEen eta erakundeen arteko lan jardunaldia* saioa antolatu dugu, GGKEekin eta Arabako erakundeetako teknikariek harremanetan jartzeko eta, bide horretatik, elkarren ezagutza sustatzeko eta lurraldean egiten diren sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza ekin-tzetan elkarrekin lan egitea ahalbidetzeko.



Aurten ere Arabako elkartasun azoka garrantzitsuenetan parte hartu dugu; maiatzaren 16an Amurrion Zero Pobrezia kanpainarekin eta urriaren 24an Laudion Pobreziaren aurkako Astearren barruan. Azken horretan, antolakuntzan parte hartzeaz gain, Gasteizko eta Laudioko ikastetxe-tan nazioarteko eta tokian tokiko pobrezia eta desberdintasunak aztertzeko eta egoera horiei aurre egin eta alternatiba eta proposamenak eskaintzeko hainbat tailer egin ditugu. Era berean, tailer horiek *Zein da zein?* kanpainarekin uztartu nahi izan ditugu, ikasleei modu sinple eta pedagogikoan pobrezia eta desberdintasunen kausak ezagutarazteko. Gainera, Zero Pobrezia kanpainak lurraldeko beste toki batzuetan ere presentzia izan du, GGKE kideek hainbat espaziotan parte hartu dutelako, esaterako, Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Egunean.

GGKEen eta beste erakunde publiko batzuen artean bitartekaritza lanak egin ditugu (*Boluntario izan nahi duzu? Zeurea da erabakia...* boluntario-tzari buruzko sentsibilizazio jardunaldia urtarrean Dulantzin; *Musutruk* trukeari buruzko sentsibilizazio ekimena ekainean Agurainen eta irailan Dulantzin; Gasteizko Ekialde Institutuaren jarduera eskaera...) eta erakunde publikoek lankidetzari buruz egin dizkiguten kontsultak edo informazio eskaerak bideratu ditugu. Era berean, GGKE kideentzat interesgarriak diren jarduerak egiten dituzten erakunde edo kolektiboek gure lankidetzari eskaini diegu. Azkenik, *Eraldatzeko lankidetzari* argazki erakusketa Laudion eta Amurrion instalatu dugu. Jarduera horiei esker Arabako komunikabideetan elkarrizketak, iritzi artikulak... presentzia izan dugu.



Lantaldeak

Lankidetzari politika garden eta deszentralizatu defendatzeko lanaren barruan, Eragin Soziala eta Politikoko taldeak bilerak eta kontaktuak izan ditugu udal eta foru gobernuetako arduradunekin, eta baita Udalean nahiz Foru Aldundian ordezkariak duten alderdi politikoekin ere. Hala, bi erakunde horietako lankidetzari politikoaren jarraipena egin dugu.

Bestalde, Gasteizko Garapenerako Lankidetzari Kontseiluan parte hartzen jarraitu dugu, eta hala, GGKE kideek adostutako posizionamenduak helarazi dizkiegu eta kalitate handiagoko lankidetzari gardenagoa lortzeko presio politikoa egin dugu. Era berean, Kontseiluaren ez-ohiko saio bat egiteko GGKE kideen eta beste erakunde batzuen laguntzarekin eskatu dugu.



Bizkaia

Beste erakunde batzuekin hainbat ekintzatan kolaboratu dugu, besteak beste UNIKIDE programan (EHU/UPVk, Bolunta-Bizkaiko Boluntariotza eta parte-hartzerako agentziak eta Koordinakundeak osatutako partzuergoa). EHU/UPV Leioan duen campusean hiru saio informatibo eskaini dira (martxoak 13 eta 20an eta apirilak 10ean) eta hiruretan parte hartu dugu. Hitzaldien helburua programa ezagutaraztea izan da, zeinak Unibertsitateko ikasleengana erakunde sozialetan eta lankidetzan arloan garatzen den boluntariotza, elkartasun eta lankidetzan jarduerak antolatuz hurbiltzen baitu. Horieta lanean eginiko orduak aukera libreko kreditu gisa kontatzen dira.

Aurten berriro *Desazkundera eta Bizitze Ona IV. topaketak: Trantsizioarantz. Eredu justu eta sostengarri bat* topaketa babestu dugu, maiatzaren 31n Bilbon egin dena. Kolektibo askoren sare lanari -Koordinakundera ere tartean dela- eta tokiko ingurunean desazkunde proiektuekin lan egiten duten beste askoren inplikazioari esker antolatu da. Aurtengo edizioan urrats bat harago joan nahi izan dugu, eta Euskal Herrian zentratu gara, gogoeta egiteko beste alternatiba batzuetaranzko trantsizioaz, horretarako lau sektore eraldatuz desazkunderaren ikuspegitik estrategikoak direnak: energia, garraioa, elikadura sistema eta herritarrak. Esparru horiek landuta eredu sostengarri, justu eta berdineko bat eraiki nahi dugu denon artean. Jarduera horri esker kolektibo antolatzaileok sarean lan egiteko aukera izan dugu, hizlari gisa gonbidatu ditugun pertsona edota kolektiboen laguntzarekin.



Azkenik, Bizkaian dugun egoitza Ganbaran dago, Bolunta-Bizkaiko Boluntarioritza eta parte-hartzerako agentziaren elkarguneko espazioan. Beste erakunde eta elkarte sozial batzuekin partekatutako espazio bat da eta horrek aukera ematen digu gainerakoekin harremanetan egoteko eta pertsona espektro zabal eta anitzagora iristeko.

Lantaldeak

Eragin sozial eta politikoko lantaldeak Bizkaiko lankidetzaren politikak egiten dituzten eragile nagusiekin harreman egonkor eta onak lortu ditu. Zehazki, aldizkako bilerak egin ditugu Bilboko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin, ordezkari politikoei eta lankidetzaren arloko pertsonari Koordinakundearen lan ildoak aurkezteko. Bizkaiko Batzar Nagusietako eta Bilboko Udaleko talde politikoekin ere elkartu gara. Era berean, Lankidetzaren Udal Kontseiluan eta bertako Batzorde Exekutiboan ordezkari izan dugun egonkorra izan dugu, Batzorde horri GGKE kide guztiek erakunde barruan adostutako posizionamenduak helarazi dizkiogularik. Bilboko Udalaren 2010-2013 II. Plan Zuzentzailearen ebaluaketan ere parte hartu dugu, gure iritziak eta ekarpenak eskainiz. Halaber, Bilboko Udaleko Esku-hartze Arloarekin bilera bat egin dugu, baldintza eta tramite administratiboek garapenerako lankidetzaren diharduten erakundeei sortzen dizkieten arazoak elkarrekin kontrastatzeko.

Aurten ere Genero taldeak barneko genero politikan aurreikusitako esku-hartze ildoak betetzen direla ziurtatzeko hainbat jardura garatu ditu: Koordinakundearen politika instituzionalak, lankidetzaren arloko politika eta prozedura publikoak, prestakuntza, komunikazioa, aliantzak, antolakuntzako egitura eta antolakuntzako kultura.



Gipuzkoa

Urtean zehar beste mugimendu sozial batzuekin aliantzak sustatzen jarraitu dugu. SOS Arrazakeria eta medicumundi gipuzkoa erakundeekin *Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako XVII. martxa* antolatzeko lan egin dugu. Martxoaren 23an *Europa ireki baten alde: Zirkulatu* lelopean Donostian egin da eta bai gizartean eta bai Gipuzkoako beste kolektibo, elkarte eta GGKE batzuen artean babes handia lortu du. Apirilaren 4tik 11ra *Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian* ekimenean Donostiako Udalarekin eta beste kolektibo batzuekin batera ere parte hartu dugu. Proiekzioek dirauten bitartean informazio espazio bat prestatzen dugu, Koordinakundeak ezagutzera eman ditzan bere argitalpenak, foileto informatiboak, kanpainak, materialak eta abar. Era berean, zikloko jarduera paraleloetan ere parte hartu dugula aipatzekoa da, Donostiako Udal Liburutegian martxoaren 31tik apirilaren 19ra *Lankidetza eraldaketarako* argazki erakusketa instalatu dugularik.



Ekintza garrantzitsuenetako bat *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio jardunaldia izan da, zeinaren hamabigarren edizioa *Zein da zein?* kanpainaren barruan egin baitugu. Jarduera hori birplanteatu eta birdiseinatu egin dugu, batetik, erakundeek egungo krisi egoeran bizi duten egoera argiago salatzeko, eta, bestetik, GGKEen lana ikusarazteko.

Herritarrei pobrezia eta desberdintasunaren arazoak azaltzeko xedez, aipatu kanpainaren topikoetan oinarritutako 4 kartel diseinatu ditugu, eta irailaren 9tik 22ra ikusgai egon dira Donostiako garraio publikoaren sareko geltokietan. Ekimen horrekin batera Interneten eta sare sozialetan hainbat komunikazio ekintza garatu ditugu –zeintzuek ekimenaren eta jardunaldiaren inpaktua handitu baitute– kanpainako topikoak desmuntatzeko eta amaieran antolatutako bertso saiorako gonbidapena luzatzeko. Jardunaldia aurkezteko komunikabideen aurrean kale ekintza antzerkitu bat egin da, non aktore talde batek pobrezia eta desberdintasuna eragiten dituzten arazoak irudikatu baitzituen. Bertso saioa irailaren



18an egin zen Donostian, Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolarien eskutik. Hiritarrekin konektatzeko modu berri honen bidez pobrezia eta desberdintasunaren inguruan zabal dabilzan topikoak eta gezurrak desmuntatzeko ahalegina egin dugu, eta baita GGKEen lana erakusteko ere eta lankidetzako funtsen murrizketa salatzen. Gainera, testuinguru berean *Zein da zein?* kanpainako *Gerraren negozioa* izeneko hirugarren bideoa aurkeztu dugu.

Bestalde, Gipuzkoako ordezkaritzan Koordinakundeak eskaintzen dituen zerbitzu zenbait zentralizatu ditugu: dohaintzen kudeaketa, curriculum vitae-ak jasotzea eta lan poltsa, sozialki arduratsuak diren eta GGKE kideei baldintza abantailatsuak eskain diezazkieketen enpresen zerrenda...

Gipuzkoako egoitza, beste kolektibo batzuekin partekatzen duguna, Donostiako hiriguneko lokal batean dago, GGKEek eta oro har gizarteak erraz aurkitzeko moduko tokian, denei arreta eman ahal izateko.

Gipuzkoako lurraldean GGKEek duten presentzia sustatzeko lan handia egin dugu ere. Ekin-tza horien artean Gipuzkoako erakunde, sare eta plataforma ugarien artean eginiko koordinazio lana azpimarratzekoa da, kontuan hartu behar baita batzuetan lurralde deszentralizatua dela eta eskualdeen arabeko ordezkaritza eta kontzentrazio handiak dituela. Ildo beretik, Gipuzkoako Udalekin hasitako lanarekin jarraitu dugu, elkarte mugimendu oso aktiboa duen lurraldea delako.

Zero Pobrezia kanpaina erakunde desberdinen to-pagunea izan da, zeinak 5 plataforma aktibo bai-tauzka (Eibar, Debagoiena, Bidasoa, Donostia eta Zarauzko Elkartasun Taldea). 50 erakunde inguruk helburu bakar batekin lan egiten dute: pobrezia eta desberdintasunak eta horiek eragiten dituzten kausak desagerraraztea. Plataforma horiek nagusi-ki Pobrezia aurkako Nazioarteko Egunaren harira aktibatu dira. Hala ere, Donostiako Zero Po-brezia Plataforma hainbat ekimenen bitartez urte osoan zehar lanean aritu da, hala nola *Topak XI Urgulleko Kulturarteko Topaketak-Munduko arro-zak* (Donostian, ekainaren 21ean), *Abordaia* Do-nostiako Aste Nagusian (abuztuaren 11n), *Emaku-meak, lurraren garapenaren hazi eta etorkizun* hitzaldia (Donostian, ekainaren 4an).

Lantaldeak

Eragin sozial eta politikoko lantaldean harremanetan jarraitu dugula lurraldean ordezkaritza duten indar politiko guztiekin azpimarratu nahi dugu, aldizka elkartu garelarik Foru Aldundiarekin



eta udaletako agintaritzekin eta baita oposizioko talde guztiekin ere, batez ere aurrekontuen gaia lantzeko.

Nazioarteko lankidetzaren defendatzeko Gipuzkoako Batzar Nagusietako oposizioko alderdi politikoei ebazpen proposamenaren zirriborroa bidali diegula aipatzekoa da, zeinari esker Gipuzkoako Ganbera horrek aho-batez onartu baitu azken ebazpena. Ekimen horrek lurraldeko talde politiko guztien artean gai horri buruzko adostasuna lortzea helburutzat dauka.

Era berean, Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Aholkularitza Batzordean parte hartzen jarraitu dugu, eta baita bertako Batzorde Iraunkorren ere, hala, lankidetzaren politikak proposatu ditugu eta udal lankidetzaz arduratzen diren eragile guztiekin askotariko politikak eta tresnak adostu ditugu.

Lankidetzaren politikak balioan jartzeko eta haien kalitatea hobetzeko Europako hauteskundearen markoan alderdi politikoekin mahai-inguru bat antolatu dugu maiatzaren 8an *Europear hauteskundeak eta elkartasun politikak: guran eraginik bai?* izenburupean. Hauteskunde hauetan parte hartu duten alderdi politiko garrantzitsuenak gonbidatu ditugu (Bildu-Berdeak ALE; PSE-EE; Ezker Anitza-IU; Equo-Primavera Europea eta Podemos). Horren inguruan elkartasun politiken arloko konpromisoak ezagutzeko eta Bruselan arlo sozialean izan dezaketen papera ezagutzeko, batez ere eskumenei dagokienean, aukera izan dugu.



Bestalde, nola optimizatu GGKEen baliabideak, nola emendatu sektoreko sinergiak eta batez ere nola lortu inpaktu handiagoa erakundeek garapenerako hezkuntzan egiten dituzten ekintzetan aztertzeko gogoeta bat egin dugu. Gogoeta horrek bere emaitzak eman ditu, eta duela zenbait urte Garapenerako eta Eraldaketa Sozialerako lantaldea sortu genuen Unibertsitatean aldaketa sozialaren eragile izan zedin. Talde horrek hainbat helburu izan ditu: EHU/UPVn sektorearen ordezkari gisa sartzeko, gure helburu berberak dituzten beste mugimendu sozial batzuekin batzea eta Gipuzkoako campusean esperientzia bat inplementatzea, Unibertsitatea gure aliatu bihurtu dadin eta pentsamendu kritikoa txertatzeko hiritarren artean lehentasunezko eragile izan dadin. Asmoa egungo ereduaren bidez defendatzen diren bikaintasun eta profesionalizazio adierazleak gainditzea da, karrera guztietan diziplina bakoitzaren funtzio soziala kontuan hartuko duen ikuspegiarekin lan egiteko. Helburu horrekin, hiru topaketa

egin ditugu Donostian. Lehena, urtarrilaren 22an *Unibertsitatea eta Gizarte Mugimenduak arteko topaketa; Unibertsitate kritikoa eta konprometituago bateruntz*. Lana jarraituz, bigarren saioa ekainaren 19an egin da. Azkenik, hirugarren saioa abenduaren 15ean egin dugu, plano praktikoagoa lantzeko asmoz. Sevillako Unibertsitateko Vicente Manzano gure artean izan da, zeinak Unibertsitateko jardunbide egoki bati buruz hitz egin baitu, erabaki organoetan eragina izateko proiektu txiki bat jarri baitute martxan, Unibertsitatean ikuspegi soziala txertatu ahal izateko.

4. KOORDINAKUNDEKO KIDEAK*

Gobernu Batzordea

Lehendakaritza Ana María Arriola, *Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna*. Lehendakariordetza Fernando Vaquerizo, *Mundubat*. Idazkaria Alfonso Roncero, *Gizakien Lurra*. Diruzaintza Jesús Ochoa, *Mugarik Gabeko Ekonomilariak*. Arabako ordezkaria Alberto Cereijo, *SETEM Hego Haizea*. Bizkaiko ordezkaria Mila Dominguez, *ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación*. Gipuzkoako ordezkaria Iñaki Orube, *Mugen Gaietik*.

Lan-taldeak

Euskadi

Eragin Soziala eta Politikoa

Nerea Basterra eta Usune Zuazo, *Oxfam Intermón*. Esther Calvo, *PROCLADE YANAPAY*. Regina Zalbidea, *FISC cooperación y desarrollo*. Jesús Ochoa eta Laura Ruiz, *Mugarik Gabeko Ekonomilariak*. Cristina Gonzalo, *Bilboko Elizbarrutiko Cáritas*. Puri Pérez, *Mugarik Gabe*. Iñaki Orube, *Mugen Gaietik*. Amaia Iguaran, *Ayuda Mas*. José Ignacio Eguizabal, *ALBOAN*. Fernando Vaquerizo, *Mundubat*. Maider Maraña, *Unesco Etxea*. Eva Silván eta Ainhoa Oceja, *Save the Children*. Pedro Ibarra, *Baltistan Fundazioa*. Gonzalo Fernández, *Hegoa*. Begoña de Juan, *Mundu Bakean*. Gloria Mora, *Egoaizia*. Ruth Pérez, *Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza*. Raquel Calvo, *Bateginez*. Eneko Calle, *Bakea eta Duintasuna*. Borja Vázquez, *Farmacéuticos Mundi-Farmamundi Mundi*.

Generoa

Amaia Iguaran, *Ayuda Mas*. Sarai Martín, *Mundubat*. Isabel Uría, *SEADen Lagunen Elkarte Bizkaia*. María Viadero, *Mugarik Gabe*. Mila Dominguez, *ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación*. Marian Sanz, *medicmundi bizkaia*. Sonia González, *Bakea eta Elkartasuna Euskadi*. María José Pérez, *ALBOAN*. Nerea Uriarte, *KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo*. Eneko Calle, *Bakea eta Duintasuna*.

Koordinakundean sartzeko eskaera berrien Jarraipen Batzordea

Itziar Hernández, *Hegoa*. Mila Dominguez, *ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación -Gobernu Batzordea ordezkatzan-*. Idoia Aldama, *Koordinazio orokorra*.

Urrats bat gehiago hausnarketa prozesuaren talde eragilea

Alberto Cereijo, *SETEM Hego Haizea*. Eduardo García Langarica, *medicmundi álava/araba*. Eneko Calle, *Bakea eta Duintasuna*. Gonzalo Fernández, *Hegoa*. José Ignacio Eguizabal, *ALBOAN*. Mila Dominguez, *ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación*. Pedro Ibarra, *Baltistan Fundazioa*. Josu Urrutia, *Mundukide*. Idoia Aldama eta Silvia de Gregorio, *Talde Teknikoa*.



Araba

Eragin Soziala eta Politikoa

Arantza Chacón eta Santi Gimeno, *SEADen Lagunen Elkarte Araba*. Ainhoa Oceja, *Save the Children*. Itziar Marquínez, *medicmundi álava/araba*. Luis Royero, *Manuel Iradier Elkarte Afrikanista*. Ananda Abaigar, *Adsis Fundazioa*. Alberto Cereijo, *SETEM Hego Haizea*.

Bizkaia

Eragin Soziala eta Politikoa

Nerea Basterra eta Usune Zuazo, *Oxfam Intermón*. Regina Zalbidea, *FISC cooperación y desarrollo*. Laura Ruiz, *Mugarik Gabeko Ekonomilariak*. Jaime Bernar, *Zabalketa*. Cristina Gonzalo, *Bilboko Elizbarrutiko Cáritas*. Amaia Iguaran, *Ayuda Mas*. Puri Pérez, *Mugarik Gabe*. Esther Calvo, *PROCLADE YANAPAY*. Maider Maraña, *Unesco Etxea*. Ricardo Fernández, *medicmundi bizkaia*. Begoña de Juan, *Mundu Bakean*. Pedro Ibarra, *Baltistan Fundazioa*. Gloria Mora, *Egoaizia*. Ruth Pérez, *Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza*. Sonia González, *Bakea eta Elkartasuna Euskadi*. Laura Castresana, *SETEM Hego Haizea*. Raquel Calvo, *Bateginez*. Eneko Calle, *Bakea eta Duintasuna*. Borja Vázquez, *Farmacéuticos Mundi-Farmamundi Mundi*.

* 2014aren amaieran.

Gipuzkoa

Eragin Soziala eta Politikoa

Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Fernando Vaquerizo, Mundubat. Gloria Alonso, Interred Euskal Herria. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan.

Gipuzkoan dauden Zero Pobrezia 5 plataformetan parte hartzen duten erakundeak ez dira hemen sartzen.

Mundu zabala, errealitate anitz ekimenaren antolaketan honako hauek parte hartu dute ere: Aloña Braceras, ALBOAN; Koldo Muro, Caritas Gipuzkoa; Ana Mocoroa, Elan Euskadi; Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak; Edurne Pujana, SETEM Hego Haizea; Yoanna Amondarain, Adsis Fundazioa; Ane García, Behar Bidasoa; Isabel Goenaga, ADRA; Fernando Vaquerizo, Mundubat; Xabi Martínez, Mugarik Gabe; Patricia Ortiz de Zarate eta Iñaki Orube, Mugen Gaietik; Mertxe Digón, Interred Euskal Herria; Ioana Osa, Haurralde Fundazioa; Cristina Casado, Bakea eta Elkartasuna Euskadi; Idoia Azpilicueta, PROYDE-PROEGA; Iñaki Revilla, PROCLADE YANAPAY; Aitor Moreno, Prosalus; Edurne Galo eta Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan; Manolo García, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza (IC-LI); Mari Carmen Elizondo, FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa Mariaren Lagundia eta Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa.

Garapenerako eta Giza Eraldaketarako Hezkuntza

Izaro Basurko eta Unai Villena, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Gema Hierro, medicumundi gipuzkoa. Patricia Ortiz de Zarate, Mugen Gaietik. Edurne Gallo, Calcuta Ondoan. Olaia Larruskain, Emaús Gizarte Fundazioa. Aitor Moreno, PROSALUS. Patricia Ponce, Haurralde Fundazioa.



Erakundeetan partaidetza

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea

Ana María Arriola, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna eta José Ignacio Eguizabal, ALBOAN.

Euskal Lankidetzaren Kontseilua

Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Eva Silván, Save the Children. José Ignacio Eguizabal, ALBOAN. Nerea Basterra, Oxfam Intermón. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Ana María Arriola, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. María Viadero, Mugarik Gabe. Eduardo Sánchez, Emaús Gizarte Fundazioa. Iñigo Martínez, Bakerako Lankidetzaren Batzarra. Silvia Felipe, Mundubat.

Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseilua

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

Vitoria-Gasteizko Garapenean Laguntzeko Kontseilua

Ainhoa Oceja, Save the Children; eta Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa.

Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua

Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa.

Talde Teknikoa

Idoia Aldama, Koordinazio orokorra. Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa. Erika Erkizia, Idazkaritza teknikoak. Irene Molero, Sareak. Natalia Rodríguez, Eragin soziala eta politikoa. Silvia de Gregorio, Ikerketa, formakuntza eta generoa. Jon González, Komunikazioa.

GGKEak

Acción Contra el Hambre
Acción Verapaz Euskadi
Acnur Euskal Batzordea
ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación
ADRA
Adsis Fundazioa
ALBOAN
Amigos del Tercer Mundo
Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu
Ayuda Mas
Bakea eta Duintasuna
Bakea eta Elkartasuna Euskadi
Bakerako Lankidetzaz Batzarra
Baltistan Fundazioa
Bateginez
Behar Bidasoa
Bilboko Elizbarrutiko Cáritas
Bizilur
Bultzapen
Calcuta Ondoan
Cáritas Gipuzkoa
Compartir
Edex Centro de Recursos Comunitarios
Egoaizia
Elan Euskadi
Elizbarrutietako Misioak
Emaús Gizarte Fundazioa
Euskadi-Cuba
Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza
Farmacéuticos Mundi-Farmamundi
FISC cooperación y desarrollo

FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa
Mariaren Lagundia
FUNDESO Garapen Iraunkorreko Fundazioa
Garabide
Garapena
Gazteak eta Garapena
Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza
Gizakien Lurra
Haurralde Fundazioa
Hegoa
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako
Ingeniería para la Cooperación-
Lankidetzarako Ingenieritza (IC-LI)
Intered Euskal Herria
Iquitanz
ISCOD Euskadi
Itaka Escolapios Fundazioa
Kainabera
KCD ONGD-Kultura, Communication
y Desarrollo
Leonekin
Manos Unidas
Manuel Iradier Elkartea Afrikanista
medicumundi álava/araba
medicumundi bizkaia
medicumundi gipuzkoa
MSH Mundu Solidarioa Helburu
Mugarik Gabe
Mugarik Gabeko Arkitektoak
Mugarik Gabeko Ekonomilariak
Mugarik Gabeko Hezkuntza
Mugen Gaietarik


Mundu Bakean
Mundubat
Mundukide
Munduko Landagunea
Munduko Medikuek
OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartea
Oxfam Intermón
Pausumedia
PROCLADE YANAPAY
PROSALUS
PROYDE PROEGA
ROKPA Euskadi
Save the Children
SEADen Lagunen Elkartea Araba
SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia
SEADen Lagunen Elkartea Gipuzkoa
SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
SERSO San Viator de Euskalherria
SETEM Hego Haizea
SODEPAZ Euskadi
Solidaridad Internacional-Nazioarteko
Elkartasuna
SOLIVE Solidaridad Vedruna
SOTERMUN
TAU Fundazioa
UNESCO Etxea
Zabalketa

Lankideak


Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaiguke: lankideak eta boluntarioak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...

5. 2014 ZENBAKITAN

Informazio eta aholkularitza zerbitzua*



Komunikabideekin eginiko ekintzak



* Kontsultak egin dira posta elektronikoz, telefonoz, presentzialki, weba/skype/sare sozialak eta abar erabiliz eta posta arruntez.

Koordinakundearekin harremanetan jartzen diren publiko nagusiak: Koordinakundeko kide diren GGKEak, partikularrak, kanpoko erakundeak edo kolektiboak, instituzioak, komunikabideak, enpresak, ikastetxeak eta Hegoaldeko kontaktuak.

Eginiko kontsulten gai garrantzitsuenak: zerbitzuak (dohaintzak, lan poltsa, baliabideak mailegatzea...); aholkularitza eta informazioa (kontaktuak, diru-laguntzen deialdiak, formakuntza, lankidetzak, tramite administratiiboak...); kanpoko erakunde edo kolektiboetako buruzko informazioa; boluntariotza eta esperientziak Hegoaldean; eta Koordinakundeari eta GGKE kideei buruzko informazioa.

** Ez ditugu kontuan hartu Koordinakundeak babestu dituen kanpo jarduerekin lotutako inpaktuak: *Desazkundera eta Bizitze Ona IV. topaketak: Transitzioarantz. Eredu justu eta sostengarri bat*; Palestinaren aldeko Mewando sarea, *Arrazakeria eta xenofobiaren aurkako XVII. Martxa*, martxoaren 8an eta azaroaren 20an eginiko mobilizazioak, Gasteizko Eskubide Sozialen aldeko Plataforma, Gune plataforma, Euskal Goi-Bilera Soziala...; ezta Zero Pobrezia kanpainari buruz dohainik txertatutako publizitate eta GGKE kideei bideratutako hedabideen eskaera guztiak ere.


Komunikazio kanalak



Batzarrak




GGKEen parte-hartzea




Formakuntza



Kanpainen, manifestuak eta beste ekimen batzuk



Mobilizazioak eta kale ekintzak



*** Ez ditugu kontuan hartu Koordinakundeak babestu dituen kanpoko ekintzak: Gune plataforma, Euskal Goi-Bilera Soziala, *Arrazakeria eta xenofobiaren aurkako XVII. Martxa*, Gasteizko Eskubide Sozialen aldeko Plataforma, Donostiako Zero Pobrezia Plataforma...

6. KONTU ARGIAK

Sarrerak 2014	Burutua (€)	%
Kuotak	30.848	7,27
Eusko Jaurlaritza	225.968	53,25
Arabako Foru Aldundia	15.000	3,53
Bizkaiko Foru Aldundia	34.000	8,01
Gipuzkoako Foru Aldundia	35.000	8,25
Bilboko Udala	18.000	4,24
Donostiako Udala	34.150	8,05
Gasteizko Udala	24.000	5,65
Jarduerengatik sarrerak	7.415	1,75
Guztizkoa	424.381	100

Gastuak 2014	Burutua (€)	%
Bulegoko materiala	5.381	1,32
Soldatak	272.578	67,05
Bidaiak	6.250	1,54
Kanpo zerbitzuak	108.624	26,73
Funtzionamendua	13.673	3,36
Guztizkoa	406.504	100

Emitza	17.877 €
---------------	-----------------

2014ko kontuak *Abante Auditores* kanpoko enpresak ikuskatu ditu eta egiaztatu du leialki islatzen dutela Koordinakundeko ondarea eta bere finantza egoera. Informazio gehiago **webean**.

Araba

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. - 1. bulegoa

01001 **Vitoria-Gasteiz**

Tel. 945 280 745

araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. - C bulegoa
48005 **Bilbo**

Tel. 944 150 300

bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8 - behea

20001 **Donostia**

Tel. 943 463 526

gipuzkoa@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Diseinu eta maketazioa: Marra S.L.

Itzulpena: Arin-Arin Itzulpen Zerbitzuak

Laguntzaileak



Lankidetzaz Bulegoa
Negociado de Cooperación

Euskararekin bat

